



ZEGAMA KO UDALA

2019KO APirilAREN 2AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.
- 2.- OLABERRIKO LURZORU KUTSATUA EGOKITZEKO LANEI BURUZKO FAKTURAK ONARTZEA.
- 3.- EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA DEPARTEAMANTUARI 2020AN ZEGAMA KO JAI-EGUNA PROPOSATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- ZEGAMA AIZKORRI MARATOIA. ZEGAMA KO UDALA ETA EL DIARIO VASCO-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.
- 5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.



ZEGAMAKO UDALA

1.- 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Alkate-Lehendakariak 2019ko martxoaren 20ko 024/0318 Alkatetza Dekretuaren berri eman du, hitzez hitz honako hau delarik:

“Udal honen 2018(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2018(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		467.688,41
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		472.532,61
Aurrekontuko zordunak :	470.547,06	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.985,55	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		199.272,93
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	146.750,70	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	52.522,23	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		740.948,09
5.- Saldo kobragaitzak:		39.002,92
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		701.945,17

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	166.524,95
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-11.912,19



ZEGAMAKO UDALA

3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	78.521,05
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	233.133,81

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	382.825,78
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	201.322,70
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	584.148,48

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Espedientearen jasotakoaren arabera, Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago, berez, plan ekonomikoa finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Beraz1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu-hartzaileak berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, egintza honekin udalbatzarrari jakinarazten zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Udalbatzarrak, erabakiaren berri jasotzen du.

2.- OLABERRIKO LURZORU KUTSATUA EGOKITZEKO LANEI BURUZKO FAKTURAK ONARTZEA.

Udalbatzarrak, 2017ko azaroaren 27an egin zuen bilkuran, 11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren barnean jasotako lanak burutzea (indusketaren barnean burutu beharreko indusketaren jarraipenaren eta analitiken laguntza teknikoaren barne), Lurkide Hondalanak S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen, 188.792,90 euro gehi 39.646,51euro (BEZ), guztira 228.439,41 eurotan (BEZ barne) eta 14 asteko egite epearekin.

Lurkide Hondalanak S.L. enpresak, lan horien honako lan ziurtagiriak aurkeztu ditu:



ZEGAMA KO UDALA

- Lehen lan ziurtagiria: 118 faktura zenbakia, 146.229,27 eurokoa (BEZ barne).
- Bigarren lan ziurtagiria: 128 faktura zenbakia, 31.360,44 eurokoa (BEZ barne).
- Hirugarren lan ziurtagiria: 196 faktura zenbakia, 50.849,68 eurokoa (BEZ barne).
- Laugarren lan ziurtagiria: 207 faktura zenbakia, 9.500,93 eurokoa (BEZ barne).

Alkateak, adierazten du lanen garapenean sortutako lan eta kostu gehigarrien ondorioz, Lurkide Hondalanak S.L. enpresak, lan gehigarri horien honako lan egiaztagiriak aurkeztu dituela:

- 5. Lan ziurtagiria: 11 faktura zenbakia, 13.059,68 eurokoa (BEZ barne).
- 6. Lan ziurtagiria: 24 faktura zenbakia, 123.627,56 eurokoa (BEZ barne).

Lan gehigarri horien zenbatekoa ikusirik eta horien justifikazioa azalduz, Lurkide Hondalanak S.L. eta udal teknikariak bideratutako agiri teknikoak aurkeztu dira.

Gastua bideratzeko beharrezkoa den aurrekontu nahikoa jasota dago Udal aurrekontuan 1.000.643.03.463.00.2019 aurrekontu sailan.

Fakturak, agiri teknikoak eta burututako lana ikusirik, horiek ontzat emanez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako fakturak onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, adierazitako aurrekontu sailei egotziz, eta ordainketa bideratzea.

3.- EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA DEPARTEAMANTUARI 2020AN ZEGAMA KO JAI-EGUNA PROPOSATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2020. urteko jaiegunen egutegia onartzeko den 52/2018 Dekretuko, 2. atalak ezartzen duenaren arabera, 2020. urteko jaiegunen egutegia osatzeko, lan ondorioetarako tokian tokiko jaietako bi egun ere, jaiegun izango direla adierazten da. Bi egun horien zehazpena, Lan eta Justizia Saileko lurralde ordezkariak egiten dute, Udal bakoitzak egiten dituen proposamen arabera.

Zentzu horretan, tokian tokiko jaieguna proposatzeko eskaera egiten da.

Guzti hori kontuan hartuz, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Ordezkaritza horri, Udalerrri honetako jaiegun bezala, 2020. urteko ekainaren 1a (Mendekoste Astelehena) proposatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau, Lan eta Justizia Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

4.- ZEGAMA AIZKORRI MARATOIA. ZEGAMA KO UDALA ETA EL DIARIO VASCO-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Alkateak, Zegama-Aizkorri Maratoiaren barnean, Zegamako Udala eta El Diario Vascoren



ZEGAMA KO UDALA

arteko hitzarmena azaltzen du.

Hitzarmenaren xedea aztertu eta bi aldeen betebeharrak eta kontraprestazioak ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegama-Aizkorri Maratoiaren barnean, Zegamako Udala eta El Diario Vascoren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Udalak burutuko duen kontraprestazioaren zenbatekoa onartzea (3.100,00 euro gehi BEZ), gastu hori 2019ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.226.01.341.00.2019 aurrekontu sailari egotziz.

Hirugarrena.- Doakienei erabakia jakinaraztea.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 02/0319 erabakia, martxoaren 7koa, lan baimena onartuz.
- 03/0319 erabakia, martxoaren 7koa, lan baimena onartuz.
- 04/0319 erabakia, martxoaren 21ekoa, 1470 fakturen erlazioa onartuz, guztira 87.499,08 eurokoa.
- 05/0319 erabakia, martxoaren 21ekoa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 85.822,92 eurokoa.
- 06/0319 erabakia, martxoaren 21ekoa, biztanleen ofiziozko baja iragarkia bideratuz.
- 07/0319 erabakia, martxoaren 21ekoa, peoi lanak burutu dituen langilearen ordainsariak (kontratu amaierakoak) onartuz.
- 08/0319 erabakia, martxoaren 21ekoa, 2019/01 kreditu aldaketa bideratzea onartuz.
- 09/0319 erabakia, martxoaren 26koa, lan baimena onartuz.
- 010/0319 erabakia, martxoaren 26koa, lan baimena onartuz.
- 011/0319 erabakia, martxoaren 26koa, 2019/01 kreditu aldaketa onartuz.
- 012/0319 erabakia, martxoaren 28koa, lan baimena onartuz.
- 013/0319 erabakia, martxoaren 28koa, lan baimena onartuz.
- 014/0319 erabakia, martxoaren 28koa, 8 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 212.835,38 eurokoa.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Bilkurakideak, San Bartolome jai egunak zeintzuk izango diren eztabaidatzen dute.



ZEGAMA KO UDALA

- Maria Pilar Elorza Inchausti zinegotziak (Zegama Lantzen) desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa maiatzaren 17an burutuko dela adierazten du. Ikastarora nortzuk joatea komeni den eztabaidatzen da.
- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), Korrikaren inguruan burutuko diren zenbait ekintzen azalpena egiten du. Zentzu honetan, Udalak erositako kilometroa, Euskaraldian antolatzaile bezala aritu direnak udalarekin batera eramatea ontzat irizten da.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO